

Koldo Aldalur

KAZETARIA

## Iruñea Digitala 2013

**P**rofesional mailako eskupilotan nagusi diren enpresek zor handia diote Nafarroari. Garai beltz haue-  
tan Labritek eutsi die txapelketei. Larunbatero ikusle ugari esertzen da pilotaren historiaz gainezka dagoen Labrit zaharreko harmailetan. Giro bikaina gehienu-  
tan, zaletasuna sortzeko giro aproposa.

Orain, Nafarroako Gobernuaren parte den Kirol Institutuko zuzendariak, Miguel Pozuetak, eskaera egin dio ASPE eta ASE-  
GARCE biltzen dituen EPELi 2013ko buruz buruko pilota finala Iruñeko pilotale-  
ku berrian joka dadin.

Okerrik ez dela, Erreinu Zaharreko hiri-  
buruko pilotaleku berriak udaberri inguruan  
zabalduko ditu ateak. Sadar inguruan eraiki  
dute eta pilota partidez gain beste hamaika  
ekitaldi hartzeko prestaturik izango da. Hiru  
mila lagunetik gora eserita eroso hartzeko  
aukera eskainiko du. Leku aproposa, beraz,  
horrelako finala jokatzeko, edukiera handie-  
neko pilotalekua litzatekeelako eta historia-  
ren pisua alde duelako.

1940an nolabait txapeldunen buruz buru-  
ko zerrenda osatzen hasi zenetik espainiar  
batek, Barberitok, Lapurdin sortutako batek,  
Xalak, arabar batek, Ogetak, birritan, hiru  
bizkaitarrek bederatzia aldiz eta sei gipuzkoa-  
rrek hamahiru bider lortu dituzte txapelik  
preziatuenak. Gainontzeko berrogeita bat



DANI BLANCO

ediziotan txapela Nafarroara joan da. Joan,  
jakina, bertan ez delako horrelako finalik  
jokatu.

Beraz, EPELe final hori zor dio Nafa-  
rroako pilotazaleari. Hala ere, azkenean  
finala Iruñean jokatzen bada egoera barre-  
garria eta negargarria, biak batera, sor dai-  
teke. Finala pilotaleku berrian. ETBko  
kamerak bertan gertatzen dena eskaintzeko  
prest eta Nafarroan bertan pilotazaleek  
finala LTD bidez (Lurreko Telebista Digita-  
la) ikusi ezin, inork ulertzen ez dituen arra-  
zoi politikoak direla medio. Beno, batzuek  
ulertzen dituzte eta horregatik gaude gauden  
egoeran. Turkian edo Errusian bai, Afrikako  
zoko ezutuenean edo Alaskako hotzetan  
bai, baina Nafarroan bertan ez. Eta horrek  
erakusten digu berriro ere politikarien eta  
herritarren artean dagoen basamortu antzua.  
Hamaika pilotazale nafarrek metaforikoki  
gustura jarriko lituzke hainbat politikari  
frontisean itsatsirik partida jokatzen ari den  
bitartean. Ea ihes egindako pilotakadaren  
batek ideiak argitzen dizkien. Eta, bide  
batez, azpialdea belztu.

Amorratuak gara hanka-sartze historiko-  
ak egiten, baina horrek ez du  
esan nahi derrigorrez beti horrela  
ibili behar dugunik.

Garai berriak askoz gehiago  
merezi du. ■



«  
Okerrik ez dela,  
Erreinu Zaharreko  
hiriburuko pilotaleku  
berriak udaberri  
inguruan zabalduko  
ditu ateak  
»

## TXANDAN

Josu Amezaga



Ez naiz euskaltzainaz ari,  
Unibertsitatean izan nuen  
ikasle miresgarri bati buruz  
baizik. Ohiko moduan ikas-  
leei Orwellen 1984 eleberritik pasarte  
bat aukeratu eta irakurtzeko eskatu nie-  
nean, Winston Smith torturatua denekoa aukeratu  
zuen berak. “Orwellek tortura ezagutu behar izan  
zuen” esan zigun aukeraketaren zergatiaz galdetuta,  
“kontaketa oso erreala baita”. Oraindik erantzunaren  
dimentsioa asmatu ezinik nengoela, “hortik pasatuta  
nago ni” gehitu zuen. Eta jarraian, gutxitan ikusi  
dudan duintasunez hasi zen Guardia Zibilaren esku

## Miren Azkarate

pasatutakoak talde osoari kontatzen, fik-  
ziotik batere ez zuen bere 101. gelaren  
berri ematen. Ikasgela isil-isilik, hogeita  
bost urtean inoiz izan dudana eskolarik  
emankorrena ez nuen nik eman, berak baizik.

Duela bost urte Unibertsitatea utzi behar izan  
zuen, berriro atxilotu eta espetxeratu egin zutelako,  
zigorra betetzeko. Otsailaren hasieran atera da kalera,  
eta pasatutakoak pasatuta ere, Winston  
gaixoaren traza betilunik ez diot ikusi  
argazkietan: irribarrea baizik.

Ongi etorria Miren, espetxeko horma-  
ren alde honetara. ■

